

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUNA

#### Aurrekontuak

#### **2016ko ekitaldian — kreditu-transferentzia egin eta konpromiso-kreditua sortuz— aurrekontu-aldaketa egiteko dosierrari behin-behineko onespena ematea**

2016ko uztailaren 8an egindako ohiko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion Gasteizko udalbatzak 2016ko ekitaldian — kreditu-transferentzia egin eta konpromiso-kreditua sortuz— aurrekontu-aldaketa egiteko dosier honi:

6. dosierra, compro/16:

— Kreditu-transferentzia, bi partida berri sortzeko:

1. 15.20.05 4411 710.03 Eusko Jaurlaritzza, AFA eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena, tranbia unibertsitateraino luzatzeko: 50.000,00 euro

2. 15.20.05 4411 710.04 Eusko Jaurlaritzza, AFA eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena, BRT eta azpiegituretarako: 10.000,00 euro

— Bi konpromiso-kreditu sortzea:

1. 15.20.05 4411 710.03 Eusko Jaurlaritzza, AFA eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena, tranbia unibertsitateraino luzatzeko

2017an: 1.139.625,00 euro

2018an: 1.139.625,00 euro

2. 15.20.05 4411 710.04 Eusko Jaurlaritzza, AFA eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena, BRT eta azpiegituretarako

2017an: 2.500.000,00 euro

2018an: 2.500.000,00 euro

2019an: 2.500.000,00 euro

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 164. artikuluan, Toki erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen Testu Bategina onetsi zeneko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 169. artikuluan xedatutakoaren ildotik, 15 egun balioduneko epea zabaltzen da, erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan dadin, Udalbatzari zuzenduta.

Behin betiko onetsizat joko da dosierra baldin eta jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 28an

*Alkatea*

**GORKA URTARAN AGIRRE**